

Goizero

Gidoia eta marrazkiak: **Javier de Isusi**
Itzulpena gaztelaniatik: **Emun (Nekane Gonzalez Gerriko)**

Astiberri Ediciones. Bilbo, 2024
Koloretan. Azal gogorrekoa
120 orrialde. 17 x 24 cm. 18 euro
Nobela grafikoa bilduma
ISBN: 978-84-10332-11-9

Azaroaren 7an salgai

Javier de Isusik 2020ko **Sari Nazionala** irabazi zuen *La divina comedia de Oscar Wilde* lanarekin. Orain, kontu handiz jorratu du zailtasun bereziak dituzten neska-mutilekin familia ingurunean **konponketa** lana egiten duten harrera **espezializatuko** familien errealitatea

GIZATASUNA, BABESIK GABEKO HAURTZAROARI AURRE EGITEKO

Ana eta Laia lagunak dira. Ana ezkonduta dago, alabak dauzka eta ez du inoiz hitz itsusirik esaten; Laia, berriz, guztiz kontrakoa da. Goizean, arratsaldean eta gauean egin beharreko lanbidea daukate. Eguneko 24 orduetan. Asteko 7 egunetan.

Javier de Isusik (2020ko Komiki Sari Nazionala, *La divina comedia de Oscar Wilde* lanarekin), pertsonaietara hedatzen duen eta haren obra osoa ezaugarritzen duen gizatasunarekin, leiho bat irekitzen dio, akuarelan, harrera familia espezializatuan parte hartzen duten bi familiaren egunerokoari –une batzuetan gordina, besteetan samurra–. Harrera mota hori kalte emozional larriak dituzten haurrei eta berariazko prestakuntza izateagatik euren familian har ditzaketen eta haurren premiei erantzun diezaieketen pertsonei zuzendutakoa da.

Bizitzaren beraren errealismoa biltzeaz gainera, FICE Spainek, Agintzari eta Resilisek eta Astiberrik elkarrekin argitaratutako *Goizero* liburuak egiaz betetako pertsonaia biziak erakusten ditu, eta esan daiteke errealitatearekin edozein antz izanez gero... errealitate hutsa dela.

Eskubide Sozial, Kontsumo eta 2030 Agendaren Ministerioak Next Generation funtsekin finantzatutako AFE SAREAK Programa hau fase pilotuan ari da gauzatzen Madrilgo, Kataluniako, Nafarroako eta Euskadiko Arabako lurraldean, Gipuzkoako Foru Aldundiak emaitza bikainekin 2007tik sustatu duen ereduari jarraituz. Programa honek Espainiako gainerako txokoetan ere ezagutarazi nahi du bere burua, lehendik daudenen osagarri izango den familia harrerako modalitate bihurtzeko eta, horrela, babesik gabe dauden haurrak babesteko neurri sorta osatzen laguntzeko. Gainera, kalte emozional larria duten neska-mutilei familia ingurune bat eskaintzen laguntzen du, eta desinstituzionalizazio estrategia errazten du.

EGILEA



Javier de Isusi (Bilbo, 1972) arkitektura ikasi zuen Donostiako eta Lisboako eskoletan. Karrera amaitu ondoren, denbora laburrez lanbidea probatu, eta bidaia batean murgildu zen. Hala, Latinoamerikako zati handi bat ezagutu zuen urtebetez. Itzultzean, beti egin nahi izan zuen horretan aritzea erabaki zuen: bineten bidez istorioak kontatzea. Hainbat komiki lehiaketatan sari batzuk irabazi ondoren, 2004an *Los viajes de Juan Sin Tierra* argitaratzeari ekin zion, eta berehala hasi ziren bere bidaietan inspiratutako sail hori frantsesera, portugesera eta finlandierara ere itzultzen. Italian eta Erresuma Batuan, gainera, unibertsitate tesietan aztertu izan dute.

Saga horretan liburuki hauek txertatu zituen: *La pipa de Marcos, La isla de Nunca Jamás, Río Loco* eta *En la tierra de los Sin Tierra*. Horiek amaitu ondoren, Luciano Saracinorekin batera, berriz ekin zion *Historias del olvido* (Dolmen, bi liburuki, 2007 eta 2011) komiki kolektiboaren gidoiak idazteari. Halaber, *La partida del soldado* idatzi zuen, Leticia Ruifernandezek ilustratua (El Jinete Azul, 2011 / La uña rota, 2023), Oscar Wilderen *El retrato de Dorian Gray* eleberria ilustratu zuen (Astiberri, 2012) eta *Ometepe* komikia marraztu zuen (Astiberri, 2012), zeinak Luciano Saracinoren gidoia daraman eta *Los viajes de Juan Sin Tierra* tetralogiaren erreferentziak jasotzen dituen.

He visto ballenas lanari esker (Astiberri, 2014), euskaraz, frantsesez eta alemanez ere argitaratu dena, Bartzelonako eta Angulemako jaialdietako album onenaren sarirako izendatu zuten. 2015ean, *Asylum* argitaratu zuen CEAR-Euskadirentzat (Euskadiko Errefuxiatuen Laguntzarako Espainiako Batzordea). Eleberri grafiko horrek errefuxiatuen gaia jorratzen du hainbat ikuspuntutatik, eta, 2017an, CEARek eta Astiberri argitaletxeak elkarrekin editatu zuten.

2019an, ia bost urteko lanaren ondoren, *La divina comedia de Oscar Wilde* (Astiberri) lana argitaratu zuen. Frantsesera eta polonierara itzulitako obra honi esker, 2020ko Komikiaren Sari Nazionala irabazi zuen, bai eta obrarik onenaren saria ere, Espainiako Komikigileen Elkarteak (AACE) emandakoa.

2020ko abenduan, *Transparentes. Historias del exilio colombiano* argitaratu zuen, Kolonbiako Egiaren Batzordeak, Hegoa elkarteak eta Astiberrik elkarrekin editatua, eta obra horrekin Ilustrazioko Euskadi Saria irabazi zuen. 2021ean, *Los viajes de Juan Sin Tierra* lanaren edizio osotua atera zuen, bai eta *Descolonizar la aventura. Un recorrido a través de Los viajes de Juan Sin Tierra* saiakera ere, Claudio Maringelliren testuekin eta Javier de Isusik berak egindako eranskinarekin. Eranskinean, komikigile izatera eraman zuten hastapeneko bidaia haiei buruzko pasadizoak, hausnarketak, erretratuak eta koloretako akuarelak daude jasota. 2021ean, halaber, *El mar recordará nuestros nombres* (Planeta) nobela grafikoa argitaratu zuen. Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren eta CSICen enkarguz egindako lan horrek Poitierseko (Frantzia) Biñeten Jaialdiko Prix de Lycéens saria jaso zuen. 2022. urteaz gero, Astiberrik argitaratu beharreko obra berria lantzen ari da, eta tartean, *Goizero* komikia osatu du, FICE Spainek eta Astiberrik 2024an elkarrekin argitaratu dutena.

EGILEAREN BESTE LAN BATZUK EUSKARAZ



Baleak ikusi ditut
2. edizioa
168 orrialde. 19 euro
ISBN: 978-84-10332-15-7



Asylum
104 orrialde. 16 euros
ISBN: 978-84-16880-13-3

EGILEAREN BESTE LAN BATZUK GAZTELANIAZ



Los viajes de Juan Sin Tierra. Edición integral
664 orrialde. 30 euro
ISBN: 978-84-18215-71-1



Descolonizar la aventura. Un recorrido a través de Los viajes de Juan Sin Tierra
Claudio Maringellirekin batera
192 orrialde. 18 euro
ISBN: 978-84-18215-74-2



La divina comedia de Oscar Wilde
4. edizioa
376 orrialde. 29 euro
ISBN: 978-84-17575-02-1

El retrato de Dorian Gray
256 orrialde. 20 euro
ISBN: 978-84-15163-50-3



Ometepe
Luciano Saracinorekin batera
80 orrialde. 16 euro
ISBN: 978-84-15163-84-8

Transparentes. Historias del exilio colombiano
136 orrialde. 16 euro
ISBN: 978-84-18215-35-3

ZER?
ZERTAN PENTSATZEN ARI ZARA ZU? KINIELAN?
JOKOZ NAHASTU ZARA, MARTIN.
KAR, KAR, BALE, ARRAZOI DUZUE.
NIK ZER DAKIT...
GAURKO PARTIDA DA. AXEL BURUA BEROTZEN ARI ZAIGU GOIZEAN JAIKI DENETIK.
ZER GERTATZEN ZAIO MUTIL HORRI BARÇAREKIN? LAGUN CULÉ-REN BAT DAUKA, ALA?
EZ DAKIT, TXO. MISTERIO BAT DA.
MUTIL HORRENGAN IA DENA BEZALA. MISTERIO PUTA BAT.
TIRA, BAINA ONDO DA-RAMAZUE, EZTA?
BAI. ONDO.
ANAK ERE BAI, ALA?
BAI... GUTXI GORABEHERA.
TIRA, EGIN GALDERA, BAINA TRANPARIK GABE ORAIN-GOAN, E?

NESKA, AURPEGI TXARRA DUZU.
ZER NAHI DUZU, BA? OSO GAIZKI DARAMAT AXELEK GOIZERO-GOIZERO EZUSTEKOEKIN ESNATZEARENA.
NORMALEAN SALTO BATEZ SARTZEN DA NIRE OHEAN, BAINA GAUR OIHUKA HASI DA...